

# B

BARREN

TOKIKOM

# Onenak Mintxetan

Mugertza krosa, domekan





residencial  
**GÉMINIS**

230.000 €tik aurrera  
garahea eta trastelekua barne



- Etxebizitza BERRIAK
- 2 eta 3 logela
- Horma-armairuak

- Guztiz hornitutako sukaldea
- BISITATU EREDU-ETXEBIZITZA



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 943 74 44 67

**ELGOIBAR**

## Agur, Txuri Beltz

2010. urtian sartu gera, baiña, egixa esanda, pena haundixarekin.



22 urte inguruan zabalik egon dan tabernia izan da Txuri Beltz, eta pote batzuk hartzeko baiño gehixago izan da neretzat, sozializatzeko modua. Oso aberasgarria da kalera jaitxi, eta beti norbait edukitzia bertan, iñori deitu biharrik izan gabe. Horrela, poliki-poliki familia bat sortu da, kuadrilla ofizialez aparteko familia. Zenbat fandango? Zenbat arin-arin? Eta zenbat *paso estrella*? Gure dantzaleku partikularra bihurtu izan dogu. Eta orain nun dantzatuko dittugu euskal musikaren pausuak? Elgoibarren euskal musika tabernetan entzuta oso arrarua bihurtu da, Euskal Herrixan egonik. Batzuk behintzat eskertuko

genduke Elgoibarko tabernetan euskal musika gehixago entzuta ferixa egunaz gain. Nun geratuko ete dira gure Joxe Ripiauekin egindako dantzak! Paradisu zineman akaso?

Ezin dot aukerarik galdu Agurri eta Jesusi eskerrak emateko. Eskerrik asko ixa zazpi urtian ni aguantatziagaittik. Eskerrik asko hainbeste urtian euskal giroko tabernia mantentziagaittik. Eta eskerrik asko patata-tortilla goxo eta patata braba hárengaittik.

Baiña, ez pentsau, merezittako itxiera festa politta izan dau Txurixak. Bertan, Baltzola Anaiak, antzerkixa, Napoka Iria eta Koello 104 rock taldea aritu ziran. Eskerrik asko zumo bedeinkuari holako agurra posible egittiagaittik. Eta eskerrik asko soiñu txikixari hautsak kendu zizkionari ere.

Urtarrillaren bigarrena ere heldu zan pena haundixarekin. Txuri Beltz taberniak bere azken orduak egin zittuan irikitta, eta urtarrillaren 3an goizeko 6:36an itxi zittuan betiko atiak. Orain, ardi galduak bezela noraezian gabizenei patxo haundi bana. Etxeko lau txikixenei, Garaziri, Saioari, Aitorri eta Loreri ere beste bana. Ia Txuriko izpiritua moduren batera edo bestera danon artian bizirik mantentzen dogun!

Herri honetan grisak ez geran pertsonak ere bagaudelako. Gora txuri-beltzak!

Nere Aranberri

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Txuri Beltza itxita, orain, ardi galduak bezela noraezian gabizenei, patxo haundi bana”**

**Mugertza krosetako irudiak jarriko ditugu astelehenean**



**Egin klik eta ikusiko duzu**

**[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)**





# MARITXU LOIOLA ETA ASIER ORBEA

Berrogeita hamar urte bete dira Urkiola baserriko Pedro Gorostidik Arrate Irratia sortu zue-  
netik, eta aitzaki hori baliatuta, Aubixako Mari-  
txu Loiola eta Elgoibarren bizi den Asier Orbea-  
rekin izan da **BARREN**. Elgoibarko berriemaile  
izan da Maritxu urte askoan, eta kirol estari  
moduan ari da azkeneko hamahiru urteotan  
Asier Orbea.

**“Jende askorentzat  
erreferente bakarra  
da Arrate Irratia”**

## ELGOIBARKO BERRIEMAILE IZANDAKOA

### Noiz hasi zinen zu Arrate Irratian?

1985ean hasi nintzen ni irratian, berriemaile moduan. Baserrietako gaiak antolatzen hasi nintzenean, behar bat bazegoela jabetu nintzen. Hasieran, faxez bidaltzen nituen nik berriari Arrate Irratira, baina behar horrekin jabetuta, astean behin neuk hitz egitea proposatu zidaten, berri horiek nik neuk ematea. Bide batez, ostegunetan, plazako berri eman nezakeela ere esan zidaten, baserriko produktuen gainean jarduteko, modu batera edo bestera. Halaxe hasi nintzen, eta iaz arte.

### Nola gogoratzen dituzu hasierako urte haiek?

Hasieran, neuk hitz egin behar horrek oso urduri jartzen ninduen. Askoz errazagoa zen informazioa idatziz bidali eta gero beraiek esatea, baina egin beharra neukala sentitu nuen. Zuzenagoa zen, naturalagoa. Hori bai, zer esan eta aukeratutako informazio hori nola eman erabakitzea ez zen beti lan erraza izan.

Arrate Irratikoek deitu behar zidaten egunean oso urduri jartzen nintzen. Baina denborarekin lasaitu nintzen. Hasieran idatzitakoa irakurtzen nuen, eta gero hasi nintzen apurka-apurka, titular bat erabaki eta informazioa zuzenean garatzen. Familia giro bat bazen han, eta hasi nintzen lotsak edo urduritasunak galtzen.

### Elgoibarko ahotsa izan zara urteotan. Ze harreman zeneukan herritarrekin?

Askotan gelditzen ninduten kalean. Orduan jabetzen nintzen Arrate Irratiaren oihartzuna noraino iristen zen. Lanpostu baten berri eman, eta segituan hasten zitzaidan jendea deika, zer eskatzen zuten galdezka. Bistakoa zen Arrate Irratiak entzulego fina zuela Elgoibarren. Arantzazura edo Lourdesera erromesaldi bat zela, Parrokiko abesbatzaren ekitaldiren bat zela edo dena delakoa zela, jende ugari etortzen zitzaidan informazioarekin. Ezaguna naiz herrian, eta Kultur Etxea hain dagoenez leku onean, sarri etortzen zitzaizki-

dan informazioarekin. Gertatu izan zait, era berean, San Lorentzoko txahalaren zozketa-ko zenbakia irratiz eman, eta kalean jendeak gelditzea, zenbaki sariduna zein zen galdezka. Dena buruan gordeko banu moduan! Halakoetan beti esaten nien: “Apuntatuta daukat, eta etorri nahi duzunean galdetzerá”. Eta han bistatzen ziren gero Kultur Etxera. Ni itzulpen lanak egiten, eta txahalaren zozketa-ko zenbakiaz galdezka herritarra. Kuriosoa zen.

### Baserri girokoentzat erreferente bat izan da Arrate Irratia. Gaur egun ere hala da?

Zalantzarik gabe. Eta ez naiz baserrian bizi direnez bakarrik ari, e? Kalean bizi diren baserriar askorentzat ere erreferentea da. Zerbait sukaldetan ez ote dago orain Arrate Irratia jarrita! Nik uste jende batentzako erreferente bakarra dela. Eta ez dauka aparteko gauzarik, baina bai, hala da. Oso atsegina da. Gainera, beste norik eskaintzen die Arratek besteko tartea baserriarrei?



**Ahotsik gabekoen berriemalle izan zara hor-taz zeu ere.**

Bai, neurri batean, bai. Baserritarrek ez zituzten eskura hedabideak, ez zuten aukerarik haiengana iristeko. Beste gauza kurioso bat ere bada. Azokako prezioen erreferentzia ere baginen. Porru sorta euro batean zegoela esan, eta berehala deitzen zizun norbaitek: "Euro bat? Ba atzo Ordizian euro bat eta hogeia egin zuen". Zentzu horretan, Arrate Irratiak baserritarren azokako prezioak bateratzeko bidea ere eman du.

**Sarri entzun dizugu Arrate Irratian aritzea etxean aritzea zela zuretzat.**

Familia giroko irratia da Arrate Irratia, gertukoa. Nik neuk ere beste irratiren batera deitu behar dudanean birritan pentsatzen dut. Nik badakit herritar askori gertatzen zaiola hori. Aldiz, Arrate Irratira lasai deitzen dut. Beste gertutasun bat dauka, eta hori bistakoa da.

**Zer eman dizu zuri Arrate Irratian lan egiteak?**

Satisfazio handia. Batetik, herriko albisteak emateko bidea ematen zuen, eta neu nintzen zubi lan hori egiten zuena, neurri batean behintzat. Erreferentzia ginen herrian, eta gure bidez, herritarrek bazuten aukera euren

**“Ufalak izan zirenekoa nekez ahaztuko dut, baina baliagarrien ere orduan sentitu nintzen beharbada”**

kezken berri emateko, eta, era berean, guk bageneukan bide bat herritarrei laguntzeko. Bestetik, euskaren alde lan egiteko aukera ere eskaini dit, euskararen normalizazioan neure aletxoak jartzeko aukera. Oso irratia euskaltzalea da, eta haren bitartez guk bageneukan euskal kultura zabaltzen laguntzeko aukera, eta, era berean, baita askotan bazterrean gelditzen den baserri mundu hori, geure mundu hori, zabaltzekoa ere. Herriko bailaretako jaien, azoken eta abarren berri emateko bide bat zen, baita azokaren egunez eguneko jarraipen bat egiteko bidea ere. 85etik hona jardun dut horretan, eta ikustekoa da zenbat jaitsi den

azoka azken urteotan. Lehen apenas egoten zen saltokirik libre, eta orain, berriz, apenas betetzen dira.

**Mezu asko zabalduko zenituen urte haue-tan guztietan. Zein izan da unerik zailena, eta zein ederrena?**

Ufalak izan zirenekoa nekez ahaztuko dut, adibidez. Baina, baliagarrien ere orduan sentitu nintzen, beharbada. Orduan, diru-laguntza batzuk ere izan ziren, eta Arrate Irratiak horien berri zabal emateko aukera eman zuen. Jende askorengana iritsi ginen. Kalte handia egin zuten ufalek, eta etxez etxe informazio idatzia bidali beharrean, Arrate Irratiaren bidez, zuzenean jo genuen jende askorengana. Udalarentzako oso baliagarria izan zen. Aurreko astean iragartzen nien entzuleei zer kontu landuko genituen hurrengo saioan, eta badakit informazio hori oso baliagarria izan zitzaiola askori. Udaletxera edo instituzioetara galdezka joateko ohiturarik ez daukan askorengana iritsi ginen. Udalak diru-laguntzaren bat lortzen zuenean, zela kortak saneatzeko, zela baserriak margotzeko, edo dena delakorako, ni asko pozten nintzen.

## **“Jende askok deitzen du urrutitik Arrate Irratia entzuteko zer egin behar duen galdezka”**

### **KIROL ESATARIA**

**Arrate Irratiak 50 urte bete ditu, baina zu zeu noiz eta nola hasi zinen?**

1993ko urrian hasi nintzen kontratupean, baina aurretik han ibiltzen nintzen. Kirol kontuetan laguntzen zien orduan aitak, eta pixkanaka-pixkanaka neuk hasi behar nuela esanez hasi zitzaidan. Hala hasi nintzen. Kronikak egiten aritzen ginen, telefonoz gehienetan. Bera leku batera joaten zen, eta ni beste batera, eta elkartutakoan, prestatzen genuen saioa. Elizan, sakristian, zegoen orduan Arrate Irratia. Lokal txiki-txiki bat zen. Ikustekoa zen. Kirol saioa 22:30ean hasten zen, eta, igande batzuetan, Arratera bertara igotzen ginen aita eta biok, zuzenean jarduteko.

**Nolakoa zen orduko Arrate Irratia?**

Baliabideak urriak ziren, baina ikustekoa zen zein ondo zainduta zegoen guztia. Disko zaharrak eta baziren, baina oso ondo zainduta. Ordurako,



Bernardo, Eukene eta beste batzuk baziren han. Don Pedrok errosarioa ere errezatzen zuen, baina lagata zituen irratsaioak.

**Zu hasi zinetik hona zenbat aldatu dira gauzak?**

*Buff.* Garai batean dena zen analogikoa, dena orratzak. Gaur egun, berriz, ordenagailu batekin ia gehiena egin daiteke. Ordokora ohituta zegoenarentzat zaila izan daiteke egungora jartzea, baina nik uste teknologiak asko erraztu duela gure lana. Arrate Irratian geuk egiten dugu programa osoa, bai mahaiko lanak eta baita esatari lanak ere, baina ordenagailuak mila baliabide ematen dizkigu, eta askoz erosoagoa da. Orain bi ordu egin ditzakezu aulkitik jaiki gabe, eta lehen, berriz, ez zegoen geldi egoteko astirik. Musika jarri, eta diskotekara saltaka, berriz.

**Zuk zeuk harreman estua izan duzu beti Arraterekin. Elizpeko frontoian orduak ematen zenituen, esatari hasi aurretik. Zer esan nahi du zuretzat Arratek?**

Gauza asko. Ni eibartarra naiz, Matsariko. Matsaria herritik aparte xamar dago, eta gaztetan herrirako baino joera handiagoa geneukan guk mendirako. Hiriarekin baino baserri giroarekin izan dut nik hartu-eman handiagoa. Nire familia, gainera, oso eliztarra da, eta Arratera ia igandero igoten ginen meza entzuteran, eta, ondoren, pilotan egitera. Garai hartan oso afizio handia zegoen pilotan jokatzeko, eta frontoia beti egoten

zen hartuta. Zer den Arrate? Ez dakit zelan azaldu. Sentimendu berezia da. Leku politak ezagutu ditut, politagoak ere bai, baina Arratek badu beste zerbait.

**“Arrate Irratian saririk eskaini ez arren, galdera bat egin eta segituan hasten da telefonoa joka”**

**Zuena irrati txikia da, baina irratiara deitzen dutenei erreparatzea baino ez dago haren oihartzuna urrutira iristen dela ikusteko.**

Bai, nik uste Arrate Irratiak oihartzun handiagoa daukala Eibartik kanpo, Eibarren bertan baino. Ulertzekoa ere bada. Eibarren beste giro bat dago, beste pentsakera bat. Ez dut esaten txarra denik, baina ezberdina da. Markina batera edo Azpeitira joaten bazara, giroa ezberdina da. Urrutiago ere iristen da gure ahotsa, eta iristen ez den lekuetan ere badute gure berri. Jende askok deitzen du urrutitik ea Arrate Irratia entzuteko zer egin behar duen galdezka. Halakoetan gurekin hartue-mana izateko modua Internet da, FM bitartez ez daukagulako haraino iristeko indarririk. Horietako asko dirua jartzeko ere prest egongo lirarteke, Arrate entzuteko, baina zoritxarrez ezin da.

**Parte-hartze handiko irratiak ere bada. Nola lantzen dituzue harreman horiek?**

Gertukoa da, bai. Deitzen dutenetako asko fijoak dira, egunerokoak, baina hori nik uste irrati guztietan gertatzen dela. Bada kontu bat, baina, beti harritu nauena. Irrati saio askotan sariak eskaintzen dituzte deitzearen truke. Arrate Irratian, baina, saririk eskaini ez arren, galdera bat egin eta segituan hasten da telefonoa joka. Ez dago zertan pizgarri berezirik jarri.

**Tradizioari estu lotutako irratiak da zuena. Kiroletan ere, herri kirolei tarte zabala eskaintzen diezue.**

Nik neuk, aitortzen dut, ez dudala ezer ulertzen herri-kirolez. Gustatzen zait ikustea, baina hortik ulertzeraz... Horretan Ziriari da *numero uno*-a. Badaude herri kirolei buruz aritzen diren beste esatari batzuk ere, baina Ziriakoren parekorik, gutxi. Nik uste bera nekatzen denean ez dela bere parekorik egongo. Pilota, futbola, txirrindularitza, arrauna... jarraitzen ditut saioan, eta saiatzen naiz hemen inguruko taldeei kaso egiten, bigarren eta hirugarren mailako taldeei-eta.

**Lagun bakarra izanda, eta Arraten egonda, nola moldatzen zara horretarako?**

Ahalegintzen gara klubetara deitzen, eta kronikak eurek bidali ditzaten, gu ez gare-lako denera iristen. Telefonoz lan egiten dugu, zaila delako jendea honaino ekartzeta. Egon daitezke prest elkarrizketa emateko, baina niri ez zait okurritzen Lagun Onak-eko entrenatzaileari, Aitor Zulaikari, honaino etortzeko eskatzea.

**Ezin ukatu, hala ere, lanerako leku pribilegiatuan zaudetenik.**

Alde onak eta txarrak dauzka. Zuk esaten duzunaren harira, ederra da bai kanpora irten, haize apur bat hartu, eta pilak kargatuta itzultzea lanera. Gogorra ere bada, aldi berean, baina. Eguraldi makurra iriten den egunean, izotza edo elurteak egiten dituenean, adibidez, ahalegin handia egin behar izaten da, eta nik uste jendeak ondo dakiela hori. Arrate Irratia sintonizatu eta lanean ari direla entzuten gaituztenean, nik uste pozten direla. Elurra ederra da, errepidean ibili behar ez denean. Aitortu beharra daukat garai batean gehiago gustatzen zitzaidala, baina orain arriskuaz kontzientetagoa naiz.

**Etxe berekoen artean dena pegatzen eiz da. Zuri entzunda ere, berbetan dabilena Bernardo dela ematen du.**

O. Ez zara hori esaten didan lehenengoa, baina ez, ez. Oso ahots ezberdina daukagu. Aitortu behar dut, hala ere, neuk ere egin nuela proba bat egia den jakitzeko. Bion ahotsa grabatu dut, eta ez dago konparaziorik. Bernardoren ahotsa oso ona da irratiarako, eta nirean, ez.





# MUGERTZA KROSA

## Atletismoaren jaia Mintxetan

**Azken orduko lesio baten ondorioz, Abshiro etiopiarra ez da izango Juan Mugertza krosean. Hala ere, korrikalari onenak ikusteko aukera izango dute Mintxetako berdegunera hurbiltzen direnek. Bihar, zapatua, udaletxean egingo diete harrera antxitxikariei, 19:30ean, eta korrikalarien festa domekan izango da, 10:00etatik aurrera.**

**Ainhoa Andonegi**

**G**izonezkoetan Komon eta emakumezkoetan Karandi kenyarrak dira Mugertza krosa irabazteko faboritoak. Leonard Komonek 2008ko krosa irabazi zuen Elgoibarren, eta, aurten, Espainiako Itlica krosa irabaztetik dator.

Mintxeta atletismo taldeko kideek aitortu dute orain dela zortzi urte krosa antolatzen hasi zirenetik, aur-

tengoa izan dela urterik zailenetakoa. Kriaren eragina atletismoan ere igarri da: aurrekontua 90.000 eurokoa izan da, iazkoa baino %10 txikiagoa. Aurrekontuaren %45, gutxi gorabehera, goi mailako atletak kontratatzen gastatu dute. Hala ere, arazo guztien gainetik, kirol ekitaldiaren kalitatea bermatuta egongo dela uste du Zigor Diez, Mintxeta taldeko kideak.

### Historia apur bat

Mugertza krosa 1943an antolatu zuten estreinakoz, eta orduan CD Elgoibarrek zeukan ardura, eta sanbartolomeetan egiten zen. 1960an Ego Toki elkarteak hartu zuen krosaren antolakuntza, eta hiru urte geroago nazioarteko krosa izatera pasatu zen. Gipuzkoako krosen egutegian sartu zuten, eta Donostiakoa baino astebete lehenago egitea erabaki zuten. Eta ordutik gaur egunera arte, behin bakarrik gelditu da bertan behera krosa: 1981ean elurte handi baten ondorioz, ezin izan zen Mugertza krosa egin.



# Hiru, bi, bat... goazen!



**Munduko korrikalari onenekin batera jardungo dute lehian Mintxeta atletismo taldeko gazteek domekan. Ilusio handiz, eta ahal duten markarik onena egiteko helburuarekin ekingo diote lasterketari, eta, seguruenik, ez zaie herriarren babesik faltako. Nora Santiago (15 urte), Cristian Aranaz (10 urte), Mikel Anakabe (17 urte) eta Lorea Santiago (13 urte) Mintxeta taldeko korrikalariak dira. Domekan Mugertza krosean hartuko dute parte, bakoitzak bere mailan, baina denek aho batez esan dute Mugertza krosa berezia dela. Elgoibarko korrikalari gazteak urteko zita garrantzitsuenaren atarian daude. BARREN astekaria beraiekin bildu da domekako lasterketa nola ikusten duten jasotzeko.**

**P**artehartzaileak Elgoibarren ibiltzen dira lasterketaren aurreko egunetan, eta Elgoibarko korrikalariak eurekin entrenatzen dira. Bestalde, Krosaren aurreko egunean partehartzaileei ongietorria egiten diete udaletxean, eta “beraiekin argazkiak ateratzeko eta autografoak eskatzeko aprobeztatzeko dugu”, adierazi du Elgoibarko Mikel Anakabe korrikalariak. Beraiekin hitz egiten dute, baina, hala ere, ez dute izar handien aholkurik jasotzen.

## Nagusitu ahala, gogorragoa

Harrigarria izan da atletismoa gogorra ote den galdetzean eman duten erantzuna: Cristian gazteak ezezko borobila bota du, eta gainerakoek oso gogorra dela erantzun dute birritan pentsatu gabe. Mikel, Nora eta Lorea Cristianen adinean hasi ziren gutxi gorabehera atletismoan, eta denborarekin gauzak asko aldatzen direla adierazi dute. Mikel Anakabek, esate baterako, astean sei egunetan entrenatzen du, eta “lehen noizean behin etortzen nintzen”. Santiago ahiz-

pak hiru edo lau egunetan izaten dituzte entrenamenduak, eta kirol gogorra dela esan dute. Adinean aurrera egin ahala, atletismoak ahalegin eta dedikazio handiagoa eskatzen duela azaldu dute. Horregatik, “jendeak laga egiten du”, azaldu du Mikelek.

Lau gazte horiek argi daukate atletismoan profesional izatea oso zaila dela. Atletismoa zaletasuna da eurentzat, eta ahal duten heinean zaletasun horri eusten saiatuko dira.



**NORA SANTIAGO** 15 urte (Jubenil maila)

Nora Santiago ilusioz, baina, aldi berean, urduri dago domekarako. Eta gainera, egunik txarre-na Krosaren bezpera dela azaldu du: "Aurreko egunean ezin izaten dut lorik egin, oso urduri jartzen naiz". Herritarren aurrean korrika egitea presio handiko kontua da bere ustez, eta "itxura ona ematea nahi izaten dut". Infantil mailan egingo du korrika, eta maila handiko korrikalariak etorriko diren arren, bere burua ez du gaizki ikusten. 3.000 metrotik gorako proban hartuko du parte, eta distantzia motzetan hobeto moldatzen bada ere, ahal duen markarik onena egiten saiatuko dela adierazi du. Berarentzat, momentuz, atletismo denboraldia ondo doala esan du, "uste baino hobeto ari naiz aurten", adierazi du Nora Santiagok. Atletismoan has-teko gomendioa egin ziotenean ez zeukala gogorik azaldu du, baina bere ahizpa Lorearekin batera sartu zen taldean, eta uste zuena baino gehiago gustatu zitzaion. Irabaztea baino garrantzitsuagoa da bere ustez, lasterketa ona egitea, eta proba indartsu amaitzea.



**LOREA SANTIAGO** 13 urte (Infantil maila)

Mugertza Krosa berezia bada ere, Lorea Santiagok gainerako lasterketa guztiak bezala prestatzen duela adierazi du: "Akaso apur bat gehiago entrenatzen dut, baina ez gehiegi". Hala ere, urduri egoten dela aitortu du, "beste edozein lasterketatan baino askoz gehiago". Lorea Santiagori parte hartzea gehiago gustatzen zaio, baina ikusle bezala ere Mugertza Krosa eta horren bueltan sortzen den giroa izugarri gustatzen zaizkio. Eskolan animatuta hasi zen atletismoan, eta zenbait proba egin ondoren, gustua hartu dio.

**CRISTIAN ARANAZ** 10 urte (Alebin maila)

Cristian Aranazek 10 urte ditu eta aurten hartuko du parte estreina-koz Mugertza Krosean, baina berak ere egun berezia izango dela azaldu du. Gaztea da oraindik, baina badaki Elgoibarko Krosa ez dela beste herrietako edozein lasterketa bezalakoa, izan ere, korrika egingo duen lehenengo aldia bada ere, aitarekin sarritan joan izan da Krosa ikustera. Egun batean atletismoan kopa asko irabazten direla esan zioten, eta korrika egiten hastea erabaki zuen, eta "dagoeneko irabazi ditut batzuk", esan du gaztetxoak.



**MIKEL ANAKABE** 17 urte (Junior maila)

Mikel Anakabek argi esan du zer den Mugertza krosa berarentzat: "Urteko lasterketarik garrantzitsuena da". Zirkuitu guztian zehar aurpegi ezagunak ikustea, eta herritarren babesa sentitzea eskertzen du, eta uneoro animuak entzutea positiboa dela dio: "Beste karreretan ez da horrelakorik gertatzen, beste herrietan ezezagunak gara". Mugertza krosako partehartzaileen maila gainerako lasterketetan baino altuagoa dela aipatu du Anakabek. Junior mailan hartuko du parte aurten, eta Mamo Wolde Saria jokatu du. Bere hitzetan, "Espainiako eta atzerriko korrikalaririk onenak etortzen dira". Badaki irabazteko aukerarik ez daukala, baina bere neurriko marka egitea du helburu. Amaitu ondoren, lasterketa telebistaz ikustea ere gustuko du: "Atletismoa ikustea Real Madril-en partida bat edo Tourra ikustea bezalakoa da niretzat".



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Txakur kakekin nazkatuta

Txakur kakaz josita daude bazterrak. Kalera irten, eta etxe atarian, ezker-eskuin, bi kaka mokordo. Zer hoberik eguna ondo hasteko! Amorrarazita lanera, eta bueltakoan zapalduko nituen beldurrez etxera. Hantxe zeuden biak, bata oso-osorik oraindik, eta zapalduta bestea. "Norbaitek eraman du etxera erregala!".

Txakur jabe batzuk ikusten ditut plastikoa eskuan dutela, txakurrak egindakoak jasotzen, baina asko dira oraindik beste aldera begiratzen dutenak. Ja-beek eurek kakak jasotzeko ardurarik ez badute hartzen, Udalak neurriren bat edo beste hartu beharko luke gutxienez, gero eta zailagoa delako kalean txakur kakarik zapaldu gabe ibiltzen. Isuna, zerga bereziren bat... ez dakit zer, baina zerbait.

J.A.A. ☺

### Txirrindulariak arrisku handia dira

Aldez aurretik argi laga nahi dut: ez nago txirrindularien kontra, beste kirolen aurka ezer ez dudana bezala. Gainera, geure inguruan txirrindularitzak duen arrakasta begi bistakoa da.

Konturatu orduko iritsiko da udaberria, eta errepideak bizikletaz beteko zaizkigu. Horrek sekulako beldurra ematen dit, Deban lan egiten dudalako eta, kontu handiz gidatu arren, errebuelta baten ostean txirrindulari bat ikusten dudana bakoitzean, aurreratzeko urduri jartzen naiz, ez dut-eta eurei ezer gertatzerik nahi. Bakarrik doazenean errazago egiten zait aurreratzea, baina binaka edo tropelean badabiltza, bide guztia hartzea ez dut ondo ikusten.

Berriz diot: ez dut ezer txirrindularien aurka, baina automobilak eta bizikletak bateraezinak dira gure errepideetan. Beharbada, eurentzako bide espezifikoko egin beharko lituzkete.

I.B.F. ☺

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zalao Amaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Justo Arriola, Arkaitz Irueta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Aina Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Justo Arriola



Arkaitz Irureta

Komunikabidiak diralakuetan agertzen dana agintzailien interesen arabera trukaturata daguala gauza jakina dok. Ezin haiz fidatu ezta animalien dokumentalekin ere. *Deia*-n etaratako Arnaldoren kartia Patxi Lopezen elkarbizitza harmonikua bezain faltsua zuan.

Ba, Plaza Haundixan egindako Pumphrey anaixen eta bertako kilarixen indar neurketiaren irudixak manipulatatu jaittuk National Geographic-ek. Lehenguan ikusi najuan bideua Interneten. Pankarta baten *Self –autodetermination for* berbak desagertu eragin eta *The Basque Country* baiño ezin leikek irakurri. Teknologixa berrixak hobeto garbitzen ei juek. Brotxa digitalakin eman, eta kitto.

Euskaldunon legendazko indarra dala-ta zirku bat prestau leikek, baiña herri aldarrikapenik ezin jauek munduari erakutsi iruzurti hórrek. Kontua ez dok hor amaitzen. lazko egun haretan, mezuak beste bateronbati ere traba egitten jauan, itxuria, eta brigadillakuei kentzeko agindu jauen. Euren lana ez zala-ta, haren ezetzaren bistan, udallexian sartu zuan, guraizak –hau bai, tresna mitikua– hartu, sokak ebagi, eta han lurrian laga jaittuan pankartak zentsuratzaille nagusixak.

### “*Deia*-n etaratako Arnaldoren kartia faltsua zuan”

Bajakixat hau ez dala aho zabalik geratzeko ezer, Elgoibarren adierazpenaren jazarpena tradizio luzekua dok-eta. Herri batzuetan, Mendaron hain zuzen, mural lehiaketak antolatzen jaittue. Hamen, berriz, Picassoren Gernikan erreplikia ere ez juen errespetatu gris-maitaliak.

Ahiztu be, 1984 berri on, ipurbeltz hori!



Informaziuan garaixan bizi gaittuk, bai. Egunian makiña bat artikulu zientifiko, txosten, iritzi eta baita iruzurrak ere urtetzen dittuk.

Internetekin, informazio askoz gehixago dago, edozeinek edozer gauza publikatu ahal jok, teorian behintzat. Egun gaitza dok dana jarraitzia, milloika eta milloika informazio egun bakoitzian. Horregaittik, bakoitzak bere faborituak eraiki biharra jaukak, eta neriak aberasteko interesik ez dauken orrixak dittuk, kontrainformaziokuak. Horregatik garaixen modura ikusi juat A gripiaren bakuniarren porrota.

### “Kontrainformatzeko aukerak min egitten jok, antza”

Internetek informaziua azkarrago hedatzia ekarri arren, ez dok dana ona; hedapen hau kulturalki jasan geinkena baiño bizkorrago jiek, erakutsi juen semaforo gorrixakin errepidia gurutzatziak ze ondorixo euki leiken, baiña iñork ez jauk erakutsi Interneten ondorixuak; adibidez, *Facebook* edo *Twenty* eta abarri esker, nerabien bizitzia edozeiñek jarraitu leikek, onerako eta txarrerako. Dagoeneko, Justo, espioitza lanak ez datuaz kamaren bittartez, norberak ematen dau-eta informazio hori sare sozialetan.

Aittatu bezela, kontrainformatzeko aukerak min egitten juek, antza, baiña jendiari, bost; komunikabide tradizionalekin bezela, jendiak *Diario Vasco* letzen jarraituko jok *Egin* eta *Egunkaria* ixtia inporta gabe. Gauza bera dok Interneten, edozeiñek publikatu leikek edozer, baiña sasoiko errifa batzuren irabazlia aurkitu nahi izatia izan dok *Gaztesarea* ixtiaren errua. Hau dok informaziuaren arua.



Elgoibarko Udala



## Erabilitako olioa eta materia organikoa birziklatzeko edukiontziaak jarriko dituzte herriko hainbat lekutan

Orain arte hilean behin etortzen zen kamioi batek jasotzen zuen etxeako olioa

**D**ebabarreneko Mankomunitateak etxean erabilitako olio birziklatzeko edukiontzi berriak jarriko ditu Elgoibarren. Orain arte, egun jakin batzuetan etortzen zen kamioi batek jasotzen zuen etxean erabilitako olio hilean behin.

Aurrerantzean, otsailetik aurrera, olio birziklatzeko hamar edukiontzi finko jarriko dituzte herriko hainbat lekutan, baina, oraindik zehazteko daude gune horiek.

Olio plastikozko ontzi edota botiletan sartuta laga beharko da edukiontzietan, tapoia ondo itxita. Ondoren, plastikozko ontzi guztiak birziklatu egingo dituzte, biodiesela egiteko.

Edukiontziak jarri aurretik etxeetan banatuko dituzten eskuorrietan azalduko dute, zehatz mehatz, nola erabili behar diren.



### Bosgarren edukiontzia

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bestalde, 450.000 euroko diru kantitatea onartu du Gipuzkoako hainbat herritan bosgarren edukiontzia jartzeko. Edukiontzi horrek materia organikoa biltzeko balio

izango du, eta marroi kolorekoa izango da. Debabarreneko edukiontziak 2010eko urri ingururako martxan jarriko dituztela aurreikusten du Aldundiak, eta biztanleriaren %35ek erabiltzea espero dute.

## Etorkinei harrera egiteko 'Ongi etorri' gida kaleratu du Udalak



**E**lgoibarrera bizi izatera datozeniei ongietorria egiteko asmoz, harrera gida kaleratu du Elgoibarko Udalak. Horren bidez, herriko zerbitzu publiko zein pribatuak ezagutarazi nahi ditu Udalak. Euskaraz gain, beste lau hizkuntzatan egin dituzte gidak: gaztelaraz, ingelesez, frantsesez eta arabieraz. Alfredo Etxeberria alkatearen ustez, bertakoentzat ere informazio erabilgarria biltzen du liburuxkak. Interesatuek Herritarren Arreta Bulegoan, Gizarte zerbitzuetan edo Kultura Sailean ere eskuratu dezakete. Gidarekin batera, bost hizkuntzatan dagoen Elgoibarko maparen 5.000 ale banatuko dituzte.

2009ko urte bukaeran 710 etorkin zeuden erroldatuta herrian, biztanleriaren %6,24. Urte bereko urtarrilaren 1ean, baina, 649 ziren. Datu horiei erreferentzia eginez, Elgoibarko etorkin kopurua hazten ari dela begi-bistakoa dela aitortu du Etxeberriak, eta harrera gidaren garrantzia nabarmendu du.



## Lekua **Sigmako eskailera mekanikoak**



Joan zen barixakuan, hilaren 15ean, inauguratu zituzten Sigmako eskailera mekanikoak. Auzoko bizilagunen irisgarritasun arazoak konpontzeko egin zituzten obrak. Eskailera mekanikoen sarreran eta irteeran argiak ere jarri dituzte. Barandak eta osagai metalikoak, berriz, altzairu herdoilgaitzekoak dira, eta 358.147 euroko kostua izan dute. Udalak finantzatu ditu Estatuaren Tokian Tokiko Inbertsioen Fondotik jasotako diruarekin.

## Berbia **Haiti**

Haitira laguntza bidaltzeko deia egin du Elgoibarko Gurutze Gorriak. Joan zen eguaztenean izandako lurrikarak kalte handiak eragin ditu, eta horiek konpontzeko diru-laguntza eskaera egin dute.

Interesatuak ondorengo kontu korrante zenbaki hauetan sartu dezakete dirua: Kutxa, 2101 0092 15 0010196970; Euskadiko Kutxa, 3035 0050 71 500046056; BBVA, 0182 5906 86 0010022227, Santander 0049 0001 53 2110022225; La Caixa 2100 0600 85 0201960066.

## Irudia **Ilara ikusgarriak**



Ikusmin handia sortu du beste behin ere Pirritx eta Porrotx pailazoen saioak. Aste honetan jarri dituzte salgai sarrerak, eta Herriko Antzokiko

leihatilatik Madala arteko ilarak sortu dira. Urtarrilaren 31n etorriko dira pailazoak Olaizaga kirodegira Elgoibarko umeen aurpegieta barrea jartzera.

## **Lanbide Heziketako merkataritzako zozketa**

Lanbide Heziketako merkataritza saileko ikasleek egin dute Gabonetako errifaren zozketa. Enpresa simulatu bat sortu dute, eta diru sarrerak handitzeko asmoz egin dute zozketa. Irabazleak bi lagunentzako egonaldia jasoko du, Debako Kresala hotelean. Zenbaki sarritua 81 izan da. Irabazleak astebeteko epea dauka saria jasotzeko, bestela ordezkokoak izango du aukera, hau da, 107 zenbakiak. Badaezpada, hirugarren zenbaki bat ere atera dute; 37. Saridunek 943 748 702 telefonora deitu dezakete.

## **Bi gazte atxilotu dituzte lapurretan egiteagatik**

Bi gazte atxilotu zituzten Donostiako udaltzainek, joan zen asteke eguenean Aterpe tabernan lapurretan egin zutelakoan. 21 eta 27 urteko susmagarriak tren geltoki inguruan ikusi zituzten Elgoibarko udaltzainek, eta abisua eman zuten inguruko herrietara. Donostiara iristean, Easoko Euskotreneko geltokian atxilotu zituzten.

## **Auto elektrikoei buruzko hitzaldia Mekan**

Datorren martitzenean, urtarrilak 26, auto elektrikoei buruzko hitzaldia izango da Mekan. Elgoibarko Arizabal elkarteak auto elektrikoei buruzko esperientzia praktikokoak eskainiko ditu, 18:00etatik aurrera. Bestalde, Bartzelonako Grau Maquinaria enpresako Joan Grau izango da hizlaria.

## **Automozio ikastaroa emakumeentzako**

Haizea emakume taldeak emakumeentzako automozio ikastaroa antolatu du. Otsailaren 8an, 9an eta 10ean izango dira saioak. Ikastaroan parte hartzeko interesa duten emakumeek Pitxintxu dendan (943 743 206) edo Mekan (943 748 019) jaso dezakete informazio gehiago.

# TOKIKOM: tokiko informazioa, hurbiletik

**Tokikom marka bateratua sortu dute BARREN astekariak eta Topagunea euskara elkarten federazioan bazkide diren hogei aldizkarik. Tokiko aldizkarien elkarlana eta talde izaera azpimarratzea da helbura. Tokiko aldizkariak tradizio eta onarpen handia dute euskaldunon artean: orain dela hogeit hamar urte hasi ziren sortzen gaur egun ezagutzen ditugunak, euskararen normalizaziorako ezinbesteko tresna gisa. Orri honetan jaso dugu marka hori sortzearen arrazoa, esanahia eta funtzioa. Hala ere, [www.tokikom.com](http://www.tokikom.com) helbidean aurkitu daiteke informazio gehiago.**

## ☑ ZER DA TOKIKOM?

Topaguneko (euskara elkarten federazioa) bazkide diren euskarazko hedabide lokalek osatzen dute Tokikom. Oinarrian, marka bat da, euskarazko tokiko hedabideak batzen dituen. Topaguneko dituen azken datuek argi erakusten dute tokiko aldizkariak hedabiderik indartsuenak direla, bakoitza bere esparruan. Baina hortik kanpo, hedabide bakoitza ezaguna da. Tokikomen asmoa hedabideen talde izaera eta kohesioa indartzea da, barrura zein kanpora begira. Tokiko hedabideen sektorea irudikatzen duen ikurra da Tokikom.

## ☑ HELBURUA

Euskarazko herri aldizkariak komunean dituzten ezaugarriak batzea da Tokikom markaren helburua. Topaguneko euskarazko hedabideak anitzak dira maiztasunari, formatuari eta itxurari dagokionean. Era berean, anitzak dira, askotariko iritziak jorratzen dituztelako eta irakurleak desberdinak direlako. Baina badira guztiak komunean dituzten ezaugarriak: hurbileko informazioa lantzen dute, gai orotarikoak; masiboak edo

unibertsalak dira, hau da, populazio osoarentzako lantzen dute informazioa. Gainera, liderrak dira euren esparruan, eta tokian tokiko hedabide guztien baturak lider bihurtzen ditu Euskal Herriko gainerako hedabideen artean. Ezaugarri komun horiek azpimarratzea eta indartzea da kontua. Aniztasunari uko egin gabe, talde izaera ere badutela gizarteratzea, eta, guztiok batuta, 220.000 irakurle baino gehiago izateak ematen duen indarra hobeto baliatu ahal izatea ere bada marka bateratuaren helburua.

## ☑ ZER ESKAINTZEN DIO TOKIKOMEK IRAKURLEARI?

Paperezko produktuari dagokionean, irakurleek aldaketa gutxi igarriko dute. BARREN astero bezala jasotzen jarraituko dute, baina azalean, Tokikom marka izango du.

Berrikuntzen artean, [www.tokikom.com](http://www.tokikom.com) webgunea aipatu behar da. Irakurleak Tokikomeko aldizkari guztien titularrak jasotzeko ahal izango ditu zuzenean, eta gehiago sakondu nahi izanez gero, jatorrizko iturrira, hau da, tokiko aldizkariaren webgunera joateko aukera izango du.

## TOKIKOM OSATZEN DUTEN ALDIZKARIAK

- ...eta kitto! (Eibar)
- Aikor (Txorierrri)
- Aiurri astekaria (Beterrri – Buruntza)
- Aiurri hamaboskaria (Beterrri – Aiztondo)
- Anboto (Durangaldea)
- Asteleheneko Goienkaria (Debagoiena)
- Barren (Elgoibar)
- Begitu (Arratia)
- Berton (Mahatserrria)
- Drogeteniturrri (Ermua, Mallabia)
- Goienkaria (Debagoiena)
- Guaixe (Sakana)
- Hernaniko Kronika (Hernani)
- Karkara (Aia, Orio)
- Otamotz (Urretxu-Zumarraga)
- Pii-Pilean (Soraluze)
- Prest (Deustualdea)
- Ttipi-Ttapa (Baztan-Bidasoa-Malerreka)
- Txintxarri (Lasarte-Oria)
- UK (Uribe Kosta)





# AIRETIK ATERATAKO ERRETRATUAK SALGAI!

Eskatu zeurea!  
Informa zaitez  
943 744 112 telefonoan.

# BARRENeke erretratuak salgai!

BARREN astekarian edo  
[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net) atari digitalean  
argitaratzen diren erretratuak erosteko  
aukera daukazu (erretratu bakoitza 2 euro).

Nafarroa enparantza, 2 - Elgoibar - Tel.: 943 744 112 - [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Haitiko lurrikaran kaltetuentzako laguntza eske ari dira batetik eta bestetik. Finantza erakundeek ere kontu korronteak zabaldu dituzte, diru-laguntzak jasotzeko.

## Behar den lekura iristen dira emandako laguntzak?



**Begoña Elizondo**  
53 urte, pentsioduna

Ez dakit garbi noraino iristen den guk emandakoa, baina iritsiko den itxaropena badut behintzat. Guk eman dugu zerbait, eta nahi nuke iristea, behar handia dutelako han. Hala ere, laguntza guztia aireportuan geldi dagoela entzuteak amorrua eta pena handia ematen dit.



**Carmen Alamino**  
49 urte, etxeakoandrea

Ez naiz batere fidatzen. Hemen ematen den diru hori esku askotatik pasatzen da, eta asko bidean gelditzen da. Nik uste jasotakoaren erdia baino gutxiago iristen dela behar den lekura. Egunean euro bat ematea ez da ezer, baina euro hori ere ez dela iritsiko uste duzunean...



**Javier Correa**  
36 urte, ONCEko saltzailea

Ni ez naiz asko fidatzen, egia esan. Nik neuk eramateko aukera banu, sikiera, baina uste dut bitartekari larregi daudela eta ez dela emandako guztia iristen. 60 eurotik 40 euro iritsiko dira, eta 40tik 15. Hala ere, argi dago edozein laguntza asko dela.



**Javier Rodrigo**  
38 urte, espezialista

Zerbait iritsiko da, baina dena dena seguru ezetz. Bidaian eta logistikan zerbait galduko da. Dena den, egongo da jendea guzti honetatik etekina ateratzen duena ere. Bakar baten laguntza ez da asko, baina denok emango bagenu, beharbada, bai.

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Abenduko irabazlea:  
**GEMA**

Urtarrileko saria:  
**AURPEGIKO HIGIENEA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26

**BARREN ELGOIBARTIK KANPO JASOTZEN DUTENETZAKO OHARRA**

2010eko harpidetza kuotak ondorengoak izango dira (Elgoibarko Izarrako bazkideek %20ko deskontua izango dute)

- B** ▶ Euskal Herria eta Espainia: 20 euro (bazkideek 16 euro)
- B** ▶ Europa: 30 euro (bazkideek 24 euro)
- B** ▶ Europatik kanpo: 40 euro (bazkideek 32 euro)

Norbaitek harpidetza eten nahi badu, jar dadila gurekin harremanetan: 943 744 112 (Ainhoa) edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)





### Merkatu Plaza azpiko komu- netan usain txarra dago:


“Merkatu Plaza azpiko komunak oso egoera txarrean daude. Zikinak egoten dira askotan, eta usain txarra darie, baina hori ez da txarrena: nire ustez, komun horiek berriro egin behar dituzte, oso zaharrak daude-eta. Horrela egoteko, hobeto da komunak ixtea”.



**Ikastolak eta Herri Eskolak egutegi berbera eduki beharko lukete:** “Ikastolak eta Herri Eskolak egun diferenteetan hartu zituzten Gabonetako oporrak, eta berriro eskolan hasteko eguna ere desberdina izan da. Hau da, Ikastolakoek bi egun lehenago hartu zituzten oporrak, eta urtarrilean bi egun lehenago hasi ziren eskolan. Atxutxiamaikea aisialdi taldeak Ikastolaren egutegiaren arabera antolatu ditu negulekuak, eta ondorioz, Herri Eskolako umeez ez dute aukera berbera izan: lehen egunetako ekintzetan ezin izan zuten parte hartu, eta Errege Egunaren ondorengo egunetan oportetaren egon arren, ez zeukaten negulekurik. Datozen oporraldietarako ikastetxeetako egutegiak bateratzeko eskatu nahiko nuke, herriko ume guztiek aukera bera izan dezaten”.

**Kirol Patronatuko bazkide kuota asko garestitu da:** “Iaztik hona 25 euro garestitu da Kirol Patronatuko familia-kuota. Urtetik urtera asko ari da garestitzen, baina aurtengoa gehiegizkoa iruditu zait. Krisi garaian gaude, eta nire ustez ezin dira horrelako gorakadak egin herritarren bazkidetza kuotetan”.

**Zaborraren kuota garestiegia da:** “Ileapaindegi bat daukat, eta sei hilabete behin 200 euro kobratzen dizkirate zaborraren kuota. Garestiegia iruditzen zait, eta gero eta zailagoa da horrelako zergeri aurre egitea. Udalak kontuan hartu beharko luke gure egoera”.



#### ESKERTZA

## IÑAKI ARRIETA ZUBIA



2010eko urtarrilaren 14an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



#### ESKERTZA

## MARIA ELENA ANSOLA ARRILLAGA



2010eko urtarrilaren 11n hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Musika eta zigiluak izan dira San Anton jaietako protagonistak

Big Band musika taldearen aurkezpena egin zuten Herriko Antzokian

**A**urtengo San Anton jaietako egitarauan leku berezia izan du musikak, eta zigilu erakusketa ere Udal Musika Bandaren 125. urteurrenari eskainitakoa izan da. Zapatuan egin zuten inaugurazioa Kultur Etxean, eta hilaren 24ra arte egongo da zabalik. Horrez gain, Udal Musika Bandak kalejira egin zuen zapatu goizean. Iluntzean, Musikalis Koroaren kontzertua izan zen San Bartolome Parrokian. *Oh Happy day* telebista saioan bigarren geratu zen Donostiako koroa, eta jende gazteak hartzen du parte. Gaur egungo abesti ezagunak abestu zituzten kontzertuan.

Domekan bestalde, San Anton Egunean, kontzertu berezia izan zen Herriko Antzokian. Azken urteotako Ertzaintzaren Bandaren ordeiz, Elgoibarko Musika Bandak eskaini zuen kontzertua. Bi zati izan zituen ekitaldiak: lehenengo zatian lau pieza eskaini zituzten bandako kideek, eta bigarren zatian Big Band musika taldearen aurkezpena egin zuten. Elgoibarko Musika Bandako hainbat kidek eta beste musikari batzuk osatutako taldea da Big Band. Ohiko bandek ez bezalako musika egiten dute. Pianoa eta baxu elektrikoa bezalako instrumentuen laguntzaz, jazz eta swing estiloko doinuak eskaini zituzten. Iban Guinea musikari gaztearen ekimenez sortu da taldea. Herriko Antzokia txiki geratu zen domeka eguerdiko musika saioan.

### Astlehenean kaleak hutsik

San Anton Eguna, urtarrilaren 17a, domekan zela-eta, astlehenera pasatu dute aurten jai eguna. Egitarauan ez zegoen astlehenerako ekitaldirik antolatuta, eta herriko kaleak hutsik egon ziren. Beherapenetara edo egun pasa joateko ohitura dute elgoibartar askok egun seinalatu horretan, eta, eguraldi eguzkitsua eta epela atera zuela aprobetxatuz, asko izango ziren, ziurrenik, hiribuetarantz jo zutenak.



*Bandak musikaz jantzi zituen kaleak.*



*Big Band taldea Herriko Antzokian.*



*Ikastolan jarri zuten umeentzako parkea.*



*Domekan itxiko da zigilu erakusketa.*



*Zigilu erakusketako antolatzaileak eta omenduak Kultur Etxe aurrean.*



# Zine latinoamerikarrari eskainitako zikloa emango du Ongarrik

Alberto Rodriguezen 'After' filmak hasiko du zikloa, egunean

**E**lgoibarko Ongarri zine-klubak beste ziklo bat antolatu du hurrengo asteetarako: film espainiarrak eta produktora latinoamerikarrekin egindako koprodukzioak emango dituzte ostegunetik aurrera. Alberto Rodriguezek zuzendutako *After* filmak hasiko du zikloa, hilaren 28an. Rodriguezek garai eta gizarte jakin baten nora eza jaso du bertan, berrogeitaka urte betetzean lagun talde batek bizi duen honoratze existentziala.

Martxoaren 4an, berriz, Alvaro Brechner zuzendari uruguaiararen *Mal día para pescar* filma emango dute. Juan Carlos Onetti idazlearen ipuin baten adaptazio zinematografikoa da.

Otsailaren 11an, berriz, *Yo, también* filma ikusteko aukera izango da. Alvaro Pastor eta Antonio Naharrok zuzendutako filma da, eta Down sindromedun gazte baten istorioa kontatzen du. Danielek 34 urte ditu eta Down sindromea du, baina hori ez da oztopo izan goi mailako ikasketak amaitzeko. Unibertsitate titulua eskuratu duen lehenengo Down sindromeduna da, eta administrazio publikoan hasiko da lanean. Danielek oso harreman estua du Laura izeneko lankide batekin, eta denborak aurrera egin ahala, harekin maiteminduko da. Horrek arazo bat baino gehiago sortzen dizkio Laurari, bere gertukoek ez dutelako harreman hori ulertzen, baina Laurari beste inork eman ez diona emango dio Danielek: laguntasuna eta maitasuna.



"Yo, también" filmeko protagonistak

Beste hiru film ere izango dira ziklo horren barruan: Isaki Lacuestaren *Los condenados*, Adrian Biniezen *Gigante* eta Javier Reboloren *Una mujer sin piano*. Hala ere, antolatzaileek ez dute zehaztu oraindik zein egunetan emango dituzten filmok.

## Kuadrillategiko errifaren zozketa egin dute

Elgoibarko Izarrak kudeatzen duen Kuadrillategi egitasmoko arduraduradunek egin dute Gabonetako errifaren zozketa, eta ondorengo zenbakiak izan dira sarituak:

1. saria: 1401 (Aterpe jatetxean bi lagunentzako afaria).

2. saria: 1510 (Fadex ileapaindegian ilea moztu eta orraztu).

Saria jasotzeko Elgoibarko Izarrara deitu daiteke, 943 741 626 telefono zenbakira.

## Oporretako bizipenak konpartitzeko deia egin dute

Gazte Informazio Guneak 'Ostegun bidaiariak' izeneko egitasmoan parte hartzeko deia egin die herritarrei. Oporretan izandako bizipenak konpartitzeko helburua dauka egitasmoak, eta, bide batez, jendeari oporretan joateko ideiak ematea. Interesatuak 943 257 986 telefonora deitu edo [gib@elgoibar.org](mailto:gib@elgoibar.org) helbidera idatzi dezakete.

## Arte eta literatura tailerra antolatu ditu Haizeak

Haizea emakume taldeak antolatuta, Michelangeloren Kapera Sixtinoa landuko dute asteleheneko arte tailerrean. Martitzenean, berriz, *Las amistades peligrosas* liburua lantzeko literatura tailerra izango da. Lehenengoa Kultur Etxean izango da 17:00etan, eta bigarrena Liburutegian 18:00etatik aurrera.

Pil-pilean Euskara Elkarte

MAKETATZAILE/ DISEINATZAILEA BEHAR DA

Eskatzen dugu: In desing, photoshop eta freehand programak ezagutzea.

Curriculumak jasotzeko azken eguna: Urtarrilaren 30a.



Pil-pilean Euskara Elkarte

Errabal kalea 15, 1. 20590 Soraluze

Informazio gehiago: 943 75 13 04 zenbakian edo [koordinazioa@pil-pilean.com](mailto:koordinazioa@pil-pilean.com) (Arrate)

### Iñaki Sagarnak Euskadiko txapelketa irabazi du pistan

Mintxeta atletismo taldeko Iñaki Sagarna korrikalari gazteak ezin hobeto hasi du 2010. urtea, Basaurin pistako Euskadiko Txapelketa irabazi du-eta. 1.000 metroko proban bera izan zen azkarrena, eta sasoiaren dagoela erakutsi zuen. Basaurin irabazi eta hiru egunera, podiumera igo zen berriro, Donostian. Errege Eguneko Nazioarteko Krosa jokatu zuen, eta helmugaratzen lehenengoa izan zen bere mailan. Uliá Gimnastika kirol elkar-  
teak antolatzen du proba hori, eta lasterkariek 4.900 metroko zirkuitua osatu zuten Kursaal, Sagues eta Zurriola artean.




### Azpeititik Elgoibarrera Morkaikorekin

Morkaiko mendizale elkar-  
teak ekin dio 2010eko urteko programazioari, eta bihar egingo dute lehenengo irteera. Azpeititik Elgoibarrera etorriko dira mendiz mendi. Goizean lineako autobusa hartu, eta Azpeitira joango dira. Handik Erlora igo eta Izarraitz mendikatea zeharkatuz etxerako bidea hartuko dute. Bukatzeko, eguraldiaren arabera bi aukera proposatu dituzte: batetik, Azkaratetik zuzenean Elgoibarrera jaitsi edo, bestela, Irukurutzeta igo eta Karakatetik zehar jaista. Autobusa 8:20an hartuko dute King-Kongeko autobus geltokian, eta antolatzaileek puntualitatea eskatu dute.

## Hiru milioi euroko eskaintza jaso du Etxeberriak Qatarren jokatzeari

Aurtengoa da Athleticen jokatu duen azken urtea

Joseba Etxeberria futbol jokalaria hiru milioi euroko eskaintza jaso du urtebetez Qatarren jokatzeari. Etxeberriak gogor onenaren saria jaso zuen 1995ean Qatarren, eta badirudi ez direla elgoibartarrarekin ahaztu. Izan ere, Qatarreko futbol ligako hiru talderen jabea den jekeak egin dio eskaintza. Eskareri ezezko biribilik eman ez badio ere, pentsatzeko denbora eskatu du aurrelari elgoibartarrak. Etxeberriak aurtur jokatu du Athleticen azken denboraldia, eta liga amaitzean hartuko du erabakia. Erantzuna baiezkoa izango balitz, ez litzateke izango futbolari ibilbidea Qatarren amaitu duen Espainiako Ligako lehen jokalaria. Pep Guardiola edo Fernando Hierro jokalariek ere azken urtea Qatarren egin zuten.



Hamabost urteko etapa zuri-gorriari, beraz, aurtur amaituko du elgoibartarrak. Athleticen eman dion maitasuna itzultzeko asmoz, kobratu gabe jokatzeko dihardu Etxeberriak.

## Elgoibarko lau eskiatzailek hartu dute parte Candanchuko Crono Nocturna proban



Morkaikoren izenean hartu zuten parte Iñigo Lariz, Joseba Elustondo, Roke Esnaola eta Arkaitz Irureta elgoibartarrak Candanchuko Crono Nocturna proban. Erlojuaren kontrako proba da. Lehenik, Candanchuko kaleetan zehar korrika egin behar izan zuten parte hartzaileek, eta ondoren eskiak jantzita Olla izeneko muinora igo behar izan ziren hiru al-

diz, berriz ere Candanchuko herri-gunean amaitzeko.

Bestalde, abenduaren 19an, Frantziako pirinotako Luz Ardiden estazioan Cronotony igoeran hartu zuten parte hainbat elgoibartarrak. Iñigo Larizek aurtengo denboraldian sasoi onean dagoela erakutsi zuen, bera izan zen-eta bigarren euskalduna sailkapenean.



# Arribillagak eta Loiolak San Anton Txapelketako finala jokatuko dute

Partidak gaur jokatuko dira, 22:00etan ikastolan

**S**an Anton Pilota Txapelketako finala jokatuko saikatu zen joan zen astean Haritz Arribillaga elgoibartarra, Erreka lagun hartuta. 5ean laga zituzten Otamendi eta Gil, bigarren finalerdietan, eta gaur, 22:00etatik aurrera, jokatuko dute promesa mailako final handia, Ezkurdia eta Bolinagaren aurka. Finalerdietako partiden moduan, finala ere, ikastolako frontoian jokatuko da.

Arribillaga ez da, hala ere, finalera iritsi den elgoibartar bakarra. Nagusietan, Eneko Loiola sanmigeldarra saikatu da, Uriarterekin bikote eginez. Loiolak eta Uriartek 13an laga zituzten Muguruza eta Uzkudun finalurrekoan, eta Atxotegi eta Jauregiren kontra lehiatuko dira gaur finalean. Loiolak eta Uriartek gaur aurkari izango dituztenek



22 eta 11 irabazi zieten Andreu eta Gorrotxategiri joan zen barixakuan jokatu zuten finalurrekoan.

## Sanloko eskubaloitako taldeko zortzi jokalarik Euskadiko selekzioarekin jokatzen aritu dira



Sanlo taldeko zortzi eskubaloitako jokalarik eta entrenatzaile batek Euskadiko selekzioarekin jokatu hartu dute parte Espainiako Autonomia Selekzioen txapelketetan. Jubenil mailako txapelketa Zaragozan jokatu zen, eta bertan izan ziren Ane Urain eta Maite Bollar elgoibartarrak. Taldea ez zen oso fin aritu: partida bakarra irabazi zuten, eta hamargarren postuan amaitu zuten txapelketa. Kadete eta Infantil mailako txapelketak Almerian jokatu ziren. Kadete mailan Ainhitze Etxeberria eta Garazi Osorok parte hartu zuten, eta bosgarren postua lortu zuten. Infantiletan, bestalde, Leire Arizmendi, Aihnoa Urbizu, Ainhoa Alberdi eta Nerea Cabo izan ziren jokatzen, eta Selekzioko bigarren entrenatzaile lanak eginez, Lorea Gabilondo (Elgoibarko Lauko kadete nesken entrenatzailea) aritu zen. Infantil nesken selekzioak hamargarren postuan bukatu zuen txapelketa.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 1 – Arenas 0 (3. maila)  
Elgoibar 1 – Antzuola 1 (Pref.)  
Elgoibar 4 – Urola 1 (Jub.)  
Aloña Mendi 2 – Elgoibar 3 (Kad. A.)  
Urki 1 – Elgoibar 8 (Inf.)  
Elgoibar 1 – Herrera 4 (Txiki.)  
Bergara 7 – Elgoibar 6 (Aleb.)  
Mondragon 10 – Elgoibar 0 (Nesk.)

### ESKU PILOTA

#### San Anton Pilota Txapelketa

Otamendi - Gil 5 – Arribillaga / Erreka 22 (promesak)  
Andreu - Gorrotxategi 11 / Atxotegi - Jauregi 22 (nag)

#### Udaberri Txapelketa

Usurbil 19 – Lagunak 1 (1. mailako nag.)  
Urnieta 8 / Lagunak 22 (1. mailako nag.)  
Pala  
Aiako 25 – Lagunak 16 (1. mailako nag.)

### ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 4 – Gala Gar 8 (Nazional B)

### ESKUBALOI

Egia 30 – Alkorta Elg. 28 (Sen. mut.)  
Beristain Elg. 29 – Aloña Mendi 21 (Jub mut.)  
Ereintza 18 – Lauko Elg. 16 (Kad. neska.)  
Bergara 34 – Pneumax Elg. 35 (Jub. mut.)  
Bankoa Elg. 11 – Arrate A 32 (Inf. mut.)  
Arrate 17 – Txariduna Elg. 19 (Inf. mut.)  
Ikus Elg. 15 – Alaia 12 (Inf. neska.)  
Aterpe Elg. 26 – Pakita Aitzariak 9 (Inf. neska.)  
Astigarraga Elg. 30 – Pulpo 9 (Inf. neska.)  
Ikus Elg. 49 – Pulpo 4 (Inf. neska.)  
Tecnifuelle Elg. 22 – Zuazu 22 (Sen. neska.)  
Usurbil 22 – Grupo Elg. 22 (Sen. neska.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 23

10:00 Elgoibar – Bergara (Ohorezko inf.)  
11:30 Elgoibar – S. Tomas Lizeoa (Kad. A.)  
18:00 Elgoibar – Eibartarrak (Kad. B.)

### ESKUBALOI (Kiroldegian)

#### Zapatua, 23

11:00 Bankoa Elg. – Udarregi (Inf. mut.)  
12:30 IMH Elg. – Aloña Mendi (Kad. neska.)  
14:00 Grupo Eibar Elg. – Aloña Mendi (Jub. neska.)  
17:30 Tecnifuelle Elg. – IES (Sen. neska.)  
Domekia, 24  
10:00 Alkorta Elg. – Haritza Eibar (Sen. mut.)

### ESKU PILOTA

#### Barbakua, 22

21:00 Lagunak-Intxurre (1. mailako kad.)  
San Anton Pilota Txapelketa (Finalak)  
22:00 Ezkurdia - Bolinaga / Arribillaga-Erreka (Pro.)  
23:00 Atxotegi - Jauregi / Uriarte-Loiola (Nag.)  
Domeka, 24  
11:00 Lagunak-Real Sociedad (Pala)  
12:00 Lagunak-Aretxabaleta (Eskuz, 1. maila nag.)

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. ☎ **660 511 781**
- Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Psikologia ezagutza. Interna edo externa. ☎ **635 313 375**
- Emakumea lanerako prest umeak zein nagusiak zaintzen, sukaldari laguntzaile, garbitzailea edo zerbitzari lanetan.. ☎ **606 564 293**
- Mutila zerbitzari lanetarako prest. Esperientziarekin. ☎ **689 144 723**
- Neska gaztea haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. ☎ **657 142 376**
- Neska gaztea edozein lanetarako prest. ☎ **638 520 765**
- Neska gaztea edozein lanetarako prest. ☎ **648 505 985**
- Neska gaztea haurrak zein nagusiak edo garbiketara lanak orduka egiteko prest. ☎ **648 603 029**
- Emakumea umeak zaintzeko edo garbiketara egiteko prest. Arratsaldez. ☎ **943 743 251**
- Mutil gaztea edozein lanerako prest. Zerbitzaria, sukaldari laguntzailea, etab. ☎ **690 701 118**
- Emakumea lanerako prest. Interna. ☎ **638 899 860**
- Neska umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. ☎ **686 420 642**

- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. 17:00etatik goizeko 10.00etara. ☎ **662 247 584**
- Neska gaztea zerbitzari lanak, garbiketara lanak egiteko prest eta nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **662 273 295**
- Neska euskalduna prest, pertsona nagusiak zaintzeko arratsaldez, asteburuetan eta jai egunetan. Klinika laguntzaile tituluarekin. ☎ **943 748 209**
- Mutil euskalduna, 20-35 adinekoa. Komertzial arloan gaitasunarekin. ☎ **685 714 572**
- Neska euskalduna etxezateko laguntzaile tituluarekin (UNED), pertsona nagusiak zaintzeko prest. Goizez. Marta. ☎ **675 711 658**

### ESKAITZA

- Astean behin edo bitan baxu klaseak emango dizkidan norbaiten bila nabil. ☎ **652 718 421**
- Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. ☎ **943 743 196**
- Udalak Berdintasun teknikaria behar du. ☎ **943 741 050**

## ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

### ALOKAIRUA

- Santa Ana kalean etxea salgai, sukaldaria, egongela eta 3 gelarekin. ☎ **639 318 477**
- Lokal-estudio txikia alokatzen da San Roken. 18 urtez gorakoentzat. ☎ **667 838 858**

## GARAJEAK

- Garajea salgai Urasandin, Anaiak eraikinean. 13m<sup>2</sup>+13m<sup>2</sup> ☎ **620 856 768**
- Seat Ibiza (SS-BH) saltzen dut. 58.000 kilometro, ondo zaindua. Modu onean. ☎ **659 358 141**
- Telefonica parean garaje itxi bat alokatzen da. ☎ **943 742 931**

## BESTELAKOAK

- Labadora bat saltzen da, Edesa markakoa. Egoera onean. Prezioa: 100 euro. ☎ **679 767 589**
- Betaurrekoak aurkitu ditut Azkarateko bide zaharretan. ☎ **943 531 537**
- Izotz pista desmontatzerakoan 140 cm tallako txamarra bat aurkitu dugu. Debemen elkartearen dago txamarra. ☎ **943 744 067**

## OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENEN eta astero [barren.iragarkilaburak.com](http://barren.iragarkilaburak.com) atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

## MODULOAK

Lana / Bestelakoak

**Astebete : 5 euro**

**2 aste : 8 euro**

**3 aste : 10 euro**

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

**Astebete : 10 euro**

**2 aste : 17 euro**

**3 aste : 25 euro**

## ELGOIBARKO MAKINA ERREMINTA ENPRESA BATEK PROIEKTUGILEA BEHAR DU

- INGENIARITZA TALDEKO KIDE IZANGO DA, TALDEKO BETEBEHAR TEKNOLOGIKO ETA ZERBITZUETAN ELKARLANEAN ARITZEAZ GAIN, AURRERA ERAMANGO DIREN I+G PROIEKTUEN ETA BEZEROEK ESKATUTAKO PROIEKTUEN DISEINUA FORMALIZATZEAZ ARDURATUKO DA.
- HAUTAGAIK DISEINU TEKNOLOGIAREN INFORMATIKA (SOLID WORK) MENPERATU ETA MEKATRONIKAKO EZAGUTZA ZABALA IZAN BEHAR DU.
- BEREHALA LANEAN HASTEKO PREST EGON BEHAR DU. LANAREN ORDAINA HAUTAGAIAREN ESPERIENTZIA ETA BALIOAREN ARABERAKOA IZANGO DA.

**CVa bidaltzeko: [omkomenka@hotmail.com](mailto:omkomenka@hotmail.com)**





• Azkenean ailegatu da zure 6. urtebetetzea! Bazen ordua ezta, **Ion Maiztegi?** Dozena erdi muxu etxekoen partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Estanis!** Danborrada egunean urtea egin zenuelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Markel, wape-ton,** atzo urtea egin zenuelako. Mila patxo! Familiakoak, eta asko maite zaituzten aitaxo eta amatxo.



• Zorionak etxeko mutil txikiari! Familiakoen, eta bereziki Goraneren partez.



• Zure urtebetetzea pasatu delako, zorionak, **Aritz!** Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Erika,** astelehenean 4 urte egingo dituzulako. Aitaxo, amatxo eta Maddiren partez.



• Zorionak, **Ekain!** 4 patxo handi-handi familiakoen partez.



• Zorionak, **Irati,** zure 4. urtebetetzean. Familiakoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Mikel,** bihar 7 urte egingo dituzulako. Zazpi muxu potolo, etxeko guztien partez.




• Zorionak, **Josu,** zure lehenengo urtebetetzean! Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **kuttuntto,** etxekoen, eta bereziki, Eiderren partez.



• San Sebastian egunean jaio zinen orain dela 8 urte. Egun zoragarria eta berezia, zu bezalaxe. Zorionak eta patxoak denon partez.



• Zorionak, **Uxue eta Elur,** datorren astean 2 urte egingo dituzuelako. Ion, Asier, Unai, Olatz, Aitor, Garazi, amona, gurasoek eta etxekoak.

**Erretratu bakarrekogurra: 2 euro.**  
**Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.** Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

**PINTURAK**  
 PEDRO PEREZ BERISTAIN  
 Xizition, 2 - 3. soltoa 943 74 36 52 - 74 27 89  
 KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Jose Angel Zabala

**MAHASTI**  
 Urdaitegi eta ardandegia  
 Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

**URKIDI**  
 AHOLKULARITZA  
 Antonio Urkidi  
 Josefina Fernandez  
 Tel.: 943 74 18 91  
 Faxa: 943 53 01 49  
 Kalamua, 12

**MEKANOSA**  
 Errosario, 27  
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**OKINDEGIA**

24 domeka **EIZAGIRRE**

**FARMAZIAK**

**24 ORDUZ**

- 22 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 23 Fernandez
- Goizez, Etxeberria (*Errosario*)
- 24 Fernandez
- 25 Yudego
- 26 Zabaleta
- 27 Etxeberria (*Errosario*)
- 28 Ibañez
- 29 Garitaonandia

**Ibañez**

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 638

**Fernandez**

Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 756 142

**Zabaleta**

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO  
GEHIAGO:**



Egin klik  
[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



**22 barixakua**

**Kirola**

**22:00** San Anton Pilota  
**Txapelketa**

San Anton Pilota Txapelketako finala jokatuko dituzte ikastolako frontoian.

Promesa mailan: Arribillaga-Erreka / Ezkurdia-Bolinaga.

Nagusietan: Atxotegi-Jauregi / Loliola-Uriarte.

**23 zapatua**

**Kirola**

**19:30** Mugertza kroseko korrikalariei ongietorria

Mugertza krosean parte hartuko dutenei harrera egingo diete udalletxean.

**Manifestazioa**

**13:30** AHTren kontrako manifestaziorako autobusa

Hendaiatik Irunera egingo den manifestaziorako autobusa ir-tengo da King-Kongeko geltokitik.

**24 domeka**

**Kirola**

**10:00** Mugertza Krossa

Juan Mugertza nazioarteko krosa jokatuko dute, Mintxetan.

**25 astelehena**

**Artea**

**17:00** Kapera Sixtinoa

Haizea emakume taldeak antolatu, arte tailerra izango da. Michelangeloren Kapera Sixtinoa landuko dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**26 martitzena**

**Literatura**

**17:00** 'Las amistades peligrosas'

Haizea emakume taldeak antolatu, literatura tailerra izango da. Bertan, Pierre Chardelos de La-clos idazlearen *Las amistades peligrosas* liburua landuko dute. Liburutegian.



**GAZTELEKUKO EKINTZAK**

**BARIXAKUA 22**

Karaokea 17:00

**ZAPATUA 23**

Filma 17:00

**DOMEKA 24**

Kros lehiaketa 17:00

**MARTITZENA 26**

Eskulanak 17:00

**EGUAZTENA 27**

Txoko pribatua 17:00

**EGUENA 28**

Sukalde txokoa 17:00



**LUDOTEKAKO EKINTZAK**

**BARIXAKUA 22**

Marrazki txokoa 17:00

**ASTELEHENA 23**

Musika jolasak 17:30

**MARTITZENA 24**

Antzerki txokoaren dinamizazioa 16:30

**EGUAZTENA 25**

Non dago Lido? 17:30

**EGUENA 26**

Talde jolasak 17:30

**«El baile de la victoria»**

- 22, barixakua: 22:15
- 23, zapatua: 19:00/22:15
- 24, domeka: 19:00
- 25, astelehena: 21:30

Espainia, 2009. Zuz.: Fernando Trueba.  
Akt.: Ricardo Darin, Abel Ayala, Ariadna Gil. 127 min. Demokrazia Txilera iritsi eta presidenteak amnistia agintzen duen garaiko istorioa da. Angel Santia-

go gazte ameslari eta ausarta da. Espe-txean jasotako tratu txarreatatik mendu hartzeko lapurreta bat egingo du, Nicolas Vergara banku lapurraren laguntzarekin.





## 29 *barixakua*

*Jaia*

9:00 San Juan Bosco

Elgoibar BH Institutuan San Juan Bosco eguna ospatuko dute. Antxitxika, bizikleta, herri kirolak, eta beste hainbat ekitaldi izango dira.

*Jaia*

9:00 IMH Eguna

Elgoibarko erreminta makinaren institutuan IMH Eguna ospatuko dute. Egun osoan zehar hainbat ekitaldi izango dira ikastetxean.



## Gure gomendioa

### Mugertza krosa

Urtarrilak 14, domeka, Mintxetan

10:00etatik aurrera, hainbat lasterketa ikusteko aukera izango da Mintxetako berdegunean. Udalak eta Mintxeta Atletismo taldeak antolatuta, munduko korrikalaririk onenak izango dira aurten ere Elgoibarren. Korrikazaleek urteko ikuskizun garrantzitsuena daukate domekan.



# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Internet eta Intranet

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2010-02-08  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko azken eguna: 2009-02-08

### Oinarrizko brikolajea

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz  
Hasiera data: 2010-02-08  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: 943 748 271 edo 943 257 986

### Auto-mekanika ikastaroa

Norentzat: Emakumeentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2010-02-08  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: Kontsultatu

### Word aurreratua

Norentzat: Word programan sakondu nahi dutenentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2010-02-15  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: Kontsultatu

### Web diseinua

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gazteleraz  
Hasiera data: 2010-04-19  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: Kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71



«Mision en Mocland: una aventura super espacial»

24, domeka: 16:30

Espainia, 2008. Zuz.: Juan Manuel Suarez García. Marrazki bizidunak. 80 min. Moc planetan arazoak dituzte, eta biztanleak arrisku bizian daude. Neflin jeneralak planetako subs-

tantzia garrantzitsuena ostu du, eta boterearen jabe egin da. Pola erreginak aloma minerala bilatzeko espedizio bat antolatuko du, energia lortu ahal izateko.

## Erretratu zaharra



1964

Aste honetako erretratu zaharra Ego Toki elkarteko artxibotik aterata dago. 1964. urtekoa da, Mugertza krosaren aurreko egunean ateratakoa. Jose Gurrutxaga korrikalari elgoibartarra, Abebe Bikila etiopiarra eta Ego Tokiko Fermin Arrese ageri dira bertan. Urte hartan etorri ziren estreinakoz etipoiarrak Mugertza krosera. Mamo Wolde izan zen irabazlea, eta erretratuan azaltzen den Bikila hirugarren postuan saikatu zen. Antolatzaileen arabera, Bikila gehiago zen maratoietan, eta Elgoibarko ibilbidea motz geratzen zitzaion. Bikilak, 1960an urrezko domina eskuratu zuen Erromako Olinpiar Jokotan hanka-hutsik. Ego Tokiko antolatzaileek Elgoibarren ere hanka-hutsik parte hartuko zuela pentsatu zuten, eta lasterketaren bezperan ibilbidea txukuntzen jardun zuten Jose Gurrutxagak eta Fermin Arresek. Etiopiarrek, baina, oinetakoak jantzi zituen.

## Gure berbak Hiztegia: adberbixo batzuk (6)

Hona Elgoibarren erabiltzen diran adberbixo gehixago.

- ♦ **MODU ONIAN:** Prezio onean. *Modu onian konsegidu zaban autua.*
- ♦ **NAHITTANAHIEZ:** Nahitaez, derrigorrez. Derrior ere erabiltzen da. *Bixarko amaitsu bi'ot lan hau, nahittanahiez.*
- ♦ **NASAI:** 1. Zabal. *Nasaitxo daukadaz praka honek. / Torlojua nasai dao.* 2. Lasai. *Bai, nasai nao, baiña eztozue jaten, da esan ein bihar...* Trankill erabiltzen da gaur egun gehiago. Eratorriak ere bai: *Nasaittu, Nasaittasuna...* Horrek ere *nasaittasuna emate jok pixkat.* Lasai ere erabiltzen da, bi erabilertan.
- ♦ **NEKEZ:** Kostata. *Nekez topauko dozue hori bezelako neskarik.*
- ♦ **NEURE ARTIAN** (jardun/esan...): Neureki-ko, neure baitan. *Ni(k) pai hori esan, eta esan najuan gero neure artian: "Mekauen! Bi bider*

*esan dixat, baiña gehixao eztxat esango".*

- ♦ **NEURE EZJAKIÑIAN:** Nire ezjakintasunean.
- ♦ **NOIZ EDO NOIZ:** Noizean behin. **Behiñ edo behiñ** ere bai.
- ♦ **NOIZIAN BEHIÑ:** Noizean behin. **Lantzian behiñ** ere bai. Baita **behiñ edo behiñ** ere. *Nik noizian behiñ ur pixkat botatze jauat [landare-ari].*
- ♦ **NOLA-HALA:** Nola edo hala, ahal bezala. *Da geo, ba biziketia hamazazpi urtekiñ o, biziketia zar bat hartu naban. Da geo, berriz, motorra nola-hala.*
- ♦ **NORA-NORA:** Nora edo nora, norabait. *[Landare bati buruz ari da] Ura gastatze jak bakarrikan. Eta neu noa-noa juten banaiz, kargua. / "Ba, jun bi'kozu noa-noa", esan jan. / Mariñek esan tziun, "honekiñ erten ein bi'ozue nora-nora.*
- ♦ **OIÑ:** Orain. *Eon hari lasai, oiñ etorriko dok eta.*

- ♦ **OINDIK OIÑ:** Oraindik orain, orain dela gutxi.
- ♦ **INGOZ:** Oraingo. Adinekoen jardunean, ez da erabiltzen gazteen artean entzuten den **Momentuz.**
- ♦ **OIÑUTSIK:** Oinutsik, ortozik. **Hankautsik** ere bai.
- ♦ **ON BIHARREZ:** Ondo nahian. **Hobe biharrez** ere bai.
- ♦ **ONDO:** Ongi. **Ederto** ez da erabiltzen. **Ondo eta azkar, usuak hegan:** Gauzak, ondo egitekotan, patxadaz egin behar direla adierazteko erabiltzen da esaera hau.
- ♦ **ONIAN:** "A buenas". *Aitta onian, ona dok, baiña txarrian...* ez hari ingurau haregana.
- ♦ **OSKARBI:** Hodeirik gabeko zerua. *Oskarbi dao zerua.*
- ♦ **OSTERA:** Ostera, berriro.

Jesus Mari Makazaga

### I. URTEURRENA

## TOMAS MENDICUTE ULACIA eta JESUSA CHURRUCA IRIONDO



2009ko urtarrilaren 22an hil zen



2009ko urtarrilaren 26an hil zen

I. urteurreneko meza, domekan, urtarrilak 24, eguerdiko 12:00etan izango da Mendaroko Azpilgoetako elizan. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.





# Egin zaitez bazkide!

Tel.: 943 744 415

## URTEKO ABONOA:

- ✦ Familiarra..... 223 €
- ✦ Banakakoa 18 urterarte..... 97 €
- ✦ Banakakoa 18 urte baino gehiago..... 123 €
- ✦ Jubilatua..... 107 €
- ✦ Unibertsitaria..... 102 €
- ✦ Langabetuak..... % 50 beherapena



GIPUZKOA  
KIROLAK  
SARIA



Kudeaketa  
onenaren  
saria 2009





Tel.: 943 748 744

**MINTXETA TABERNA MUGERZA MUGERZA KROSAREKIN**

**2 tabernak egun guztian zehar irekita**